

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ollo kontseilariak memoria eta oroitzapena aldarrikatu ditu gizarte justuago bat eraikitzeko

*Iruñeko hilerrian izan da 1936ko kolpe militarreko identifikatu gabeko hamabi biktimaren gorpuzkien hobiratzean*

Lunes, 11 de abril de 2016

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok memoriak jokatu beharreko zeregina aldarrikatu du gaur goizean "gizarte justuago eta etikoago bat eraikitzeko"; horretarako, "kontaketa justu eta zehatza egin behar da indarkeria bidegabea eta giza eskubideen urraketa jasan zutenekiko erreparazioa egite aldera".



Gerra Zibileko hamabi biktimaren gorpuzkiak hobiratu dira Iruñeko hilerrian.

Hala adierazi du 1936ko kolpe militarreko identifikatu gabeko hamabi biktimaren gorpuzkien hobiratzean, eta jadanik duela zenbait urte lurpetik atera zirenak Urtzanten eta Añezkarren. Ekitaldia Iruñeko hilerrian egin da, udalarena den panteoi batean, eta bertan izan dira Joseba Asiron alkatea, Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibar eta Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarteko (AFFNA 1936) lehendakari Olga Alcega.

"Egia, erreparazioa, justizia" hitzekin gorpuzkien aurrean lore-eskaintza bat egin ondoren, Ollo kontseilariak adierazi du gainera, "memorik, egiak eta justiziak herrialde bat nahasketa, zinismo eta ahanzturaren espiral batean harrapatuta ez geratzea uzten dutela", eta "egia, justizia eta biktimei dagokien erreparazioa egiteko eskubidean aurrera egiteko" garaia dela, "memoriaren bidez senideei erreparazioa egiteko garaia".

Ekitaldia Iruñeko Udalarekin dagoen lankidetzeta-konpromisoaren barnean sartzan da, Memoria Historikoaren Foru Legean jasoa, desagertutako pertsonak hobiratzeko eta hobitik ateratako baina beren senideek erreklamatu gabekoak, duintasunez nonbaiten atsedean hartzeko toki bat izateko xedearekin, harik eta identifikatuak diren arte. DNA aztertuz aurkitutako gorpuzkiak norenak diren jakiten denean, familiei jakinaraziko zaie, eta haiek erabakiko dute gorpuzkiak nora eraman.

## Iruñeko hilerriko panteoia

Identifikatu gabeko gorpuzkiak Urtzanten (11) eta Añezkarren (1) atera ziren hobitik AFFNA 36k egindako lanari esker, eta Iruñeko Udalak nahiz Nafarroako Gobernuak xede horretarako eraikitako panteoian lurperatu dira (Iruñeko Santa Felizia kalea), eta bertan hamar pertsona daude dagoeneko. Azken horiek 2014 ko abenduan lurperatu ziren, eta Añezkarreko hilerriko kanpoaldean aurkitutako pertsona baten gorpuzkinak dira, bi Berriobeitiko Oteitzako hilerriko kanpoaldean, bat Ripan eta sei Antxorizko laborantzarako lursail bateko hobi batean.



Gerra Zibileko identifikatu gabeko biktimen gorpuzkiak jasotzen dituen Iruñeko panteoia.

Panteoia 3x3 metro ditu, 60 gorpuzkinetarako lekua du, hormigoi armatuz egin dago eta leundutako granito beltzeko harri trinkodunak estaltzen du. Eskuinaldean, espazio garbi bat dago banku batekin eta, haren aurrean, baso koloreko harrizko monolito bat. Panteoi guztiaren inguruan lorategiak daude.

Iruñeko Udalarena da, eta haren mantentze-lan, lurperatze eta gorpuzkiak eramateari buruzko gastuak udalak eta Nafarroako Gobernuak ordaintzen dituzte.

2014ko azaroan, Udalak eta Gobernuak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten Gerra Zibilaren nahiz Nafarroako frankismoaren biktimen identifikatu gabeko gorpuzkiak lurperatzeko. Bertan, gorpuzki horiek Iruñeko San Joseko hilerriko panteoi batean sartzea erabaki zen, Nafarroako hobi batean topatutakoak eta Gorpuak Hobitik Ateratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Protokoloaren arabera lurpetik atera izan direnak.